


**M** LH3

2017-2018



# Zuzenketa koaderno

*Izen-deiturak:* \_\_\_\_\_

*Ikastetxea:* \_\_\_\_\_

*Taldea/Gela:* \_\_\_\_\_

*Herria:* \_\_\_\_\_

*Data:* \_\_\_\_\_


**Matematika  
Gaitasuna**

**Lehen Hezkuntzako 3.a**

## 1. partea



45 minutu dituzu probaren lehen parte hau egiteko.



# Argibideak

Lehen ariketan, irakasleak ozenki irakurriko ditu zenbait problema, bata bestearen ondotik, denbora emanez zuk erantzuna idazteko behar den tokian.

Gero, testu batzuk irakurri beharko dituzu eta galderak erantzun irakurri duzunari buruz. Galdera mota desberdinak topatuko dituzu. Batzuek lau aukera dituzte erantzuteko, eta aukera zuzen bakarra hautatu beharko duzu eta biribil batekin inguratu haren ondoan dagoen letra. Adibidez:

**Zenbat da  $2 + 5$ ?**

A. 2

B. 6

C. 7

D. 11

Erantzuna aldatzea erabakitzen baduzu, ezabatu **X** batekin zure lehenbiziko aukera eta inguratu biribil batekin erantzun zuzen berria, adibidean agertzen den bezala

**Zenbat da  $2 + 5$ ?**

A. 2

B. 6

C. 7

D. 11

Beste galdera batzuetan eskatuko dizute erantzuna idazteko puntuekin seinalatzen den tartean:

**Idatzi zenbat angelu eta zenbat alde dituen triangeluak.**

.....

1.- Buruzko kalkuluko ariketa.

	Erantzuna
A kalkulua	7 pertsona
B kalkulua	5 laranja
C kalkulua	135 laranja
D kalkulua	74
E kalkulua	38
F kalkulua	12

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0, 1 edo 2 erantzun zuzen.
1	3 edo 4 erantzun zuzen.
2	5 erantzun zuzen.
3	6 erantzun zuzen.

# Nafarroako herriak


Nafarroan herri asko dago.

Herri gehienek biztanle gutxi dituzte, eta herri batzuek biztanle gehiago dituzte.




2.- Lizarrako biztanle kopurua abakoan irudikatu da. Zenbat biztanle ditu Lizarrak?

- A. 12702
- B. 13602
- C. 13702
- D. 20731




3.- Tafallako biztanle kopurua abakoan irudikatu da. Nola idazten da Tafallako biztanle kopurua?

- A. Hamar mila laurogeita bederatzi.
- B. Hamar mila zortzihun eta bederatzi.
- C. Hamar mila bederatzihun eta zortzi.
- D. Laurogeita hamar mila zortzihun eta bat.





4.- Osa ezazu zuriz dagoen laukitxo eta Barañainek zenbat biztanle dituen jakinen duzu.



Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Zuzen idatzi du 20475 zenbakia.


5.- Ordenatu mapan ageri diren herrien biztanle kopurua, handienetik txikienera.



Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	4 zenbakiak zuzen ordenatu ditu.

6.- Hurbildu Cortesko biztanle kopurua hamarreko gertuenera.

- A. 3000
- B. 3100
- C. 3190
- D. 3200



CORTES  
3192 biztanle

7.- Ematen dizkizugun arrastoak erabiliz, zenbat biztanle ditu Orbaizetak?

- 3 zifrako zenbakia da.
- Zifra guztien batura 4 da.
- 2 ehunekotara gehien hurbiltzen den zenbakia da.



Orbaizetak **2** **0** **2** biztanle ditu.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	202 zenbakia idatzi du.

- 8.- Eguesibarko bi herriren biztanle kopuruak ageri dira ondoko taulan. Egin eragiketak eta osatu taulan falta diren datuak.

	Gizonak	Emakumeak	Guztizkoa
Ardanatz	41	29	70
Sarriguren	7196	7009	14205

#### Eragiketak

$$\begin{array}{r}
 70 \\
 -41 \\
 \hline
 29
 \end{array}
 \qquad
 \begin{array}{r}
 7196 \\
 +7009 \\
 \hline
 14205
 \end{array}$$

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerrak edo osatu gabeak, eragiketak ongi planteatzen baditu ere. Erantzun zuzenak, eragiketak planteatu gabe.
1	Eragiketa bat ongi planteatuta dago eta haren erantzuna zuzena da.
2	Bi eragiketak ongi planteatuta daude eta haien erantzunak zuzenak dira: <i>Ardanatzko emakumeak, 29, eta Sarrigurengo gizon-emakumeak, guztira, 14205.</i>

9.- Bilatu Nafarroako herri baten izena.

- Lehen, kalkulatu letra bakoitzari dagokion eragiketaren emaitza.

Hitza	O	P	S	A	R	C
Eragiketa	7 x 8	26ren bikoitza	56ren aurreko zenbakia	50 zenbakiari 72 : 8 eragiketaren emaitza batu	Hiru aldiz hamazazpi	108ren erdia

- Gero, idatzi dagokion letra emaitza bakoitzaren azpian.

Emaitza	54	59	52	59	51	51	56	55	56
Letra	C	A	P	A	R	R	O	S	O
Herriaren izena									

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	<u>Lau letra desberdin baino gutxiago</u> zuzen jarri ditu.
1	Lau letra desberdin zuzen jarri ditu, gutxienez.
2	Letra guztiak zuzen jarri ditu eta CAPARROSO izena zuzen idatzi du.



10.- Osatu seriea eta Tuterak zenbat biztanle dituen jakinen duzu.

35450	35430	35410	35390
-------	-------	-------	-------

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra.
1	35390 erantzuna.

11.- Badira biztanle kopuru bera duten lau herri. Lau herri horien artean 1296 biztanle badituzte, egin zatiketa hau herri bakoitzak zenbat biztanle dituen jakiteko.

$$\begin{array}{r}
 1296 \quad | \quad 4 \\
 \underline{09} \phantom{00} \\
 16 \phantom{00} \\
 \underline{0} \\
 \phantom{00}
 \end{array}$$

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	Zatidura 324 eta hondarra 0.

# Kromo bilduma

Neska-mutiko askok kromoekin bilduma egiten dute eta albumean itsasten dituzte.




12.- Aitana eta Sergio beren kromoak kontatzen ari dira. Sergiok Aitanak baino 36 kromo gutxiago ditu. Sergiok 178 kromo ditu. Zenbat kromo ditu Aitanak?

Idatzi eragiketa edo eragiketak, eta soluzioa.

## Egin beharreko kalkuluak

*Zenbait metodo erabil daitezke, adibidez:*

$$178 + 36 = 214 \text{ kromo}$$



Aitanak .....**214**..... kromo ditu.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Planteamendu okerra. 0 puntu emanen dira, orobat, ikasleak soluzio bat idazten badu (zuzena izan arren), baina ez eragiketak.
1	Planteamendua zuzen egin du, baita azken soluzio zuzena idatzi ere.

- 13.- Iratxek 246 kromoko bilduma osatu du. Kromo guztiak bere albumean itsatsi ditu. Orrialde bakoitzean 6 kromo itsatsi ditu. Kromo guztiak itsasteko zenbat orrialde erabili ditu?

Idatzi eragiketa edo eragiketak, eta soluzioa.

**Egin beharreko kalkuluak**

*Zenbait metodo erabil daitezke, adibidez:*

$$246 : 6 = 41 \text{ orrialde.}$$



.....**41**..... orrialde erabili ditu kromo guztiak itsasteko.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Planteamendu okerra. 0 puntu emanen dira, orobat, ikasleak soluzio bat idazten badu (zuzena izan arren), baina ez eragiketak.
1	Planteamendua zuzen egin du, baita azken soluzio zuzena idatzi ere.

- 14.- Lau lagun kromoan bilduma egiten ari dira. Lagun batek izan ezik, beste lagun guztiek 168 kromoko albuma osatu dute. Lagun horri 15 kromo falta zaizkio albuma osatzeko. Zenbat kromo dituzte lau lagunek guztira?



Idatzi eragiketa edo eragiketak, eta soluzioa.

**Egin beharreko kalkuluak**

*Zenbait metodo erabil daitezke, adibidez:*

A metodoa:  $168 \times 4 = 672$  ;  $672 - 15 = 657$  kromo

B metodoa:  $168 \times 3 = 504$  ;  $168 - 15 = 153$  ;  $504 + 153 = 657$  kromo

C metodoa:  $168 - 15 = 153$  ;  $153 + 168 + 168 + 168 = 657$  kromo

Lau lagunek .....**657**..... kromo dituzte, guztira.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Planteamendu okerra. 0 puntu emanen dira, orobat, ikasleak soluzio bat idazten badu (zuzena izan arren), baina ez eragiketak.
1	Planteamendua zuzen egin du, baita azken soluzio zuzena idatzi ere.

- 15.- Martinek 28 kromo ditu. Eduardok Martinek dituen kromoen bikoitza dauka. Zenbat kromo dituzte bien artean?

Idatzi eragiketa edo eragiketak, eta soluzioa.

**Egin beharreko kalkuluak.**

*Zenbait metodo erabil daitezke, adibidez:*

A metodoa:  $28 \times 2 = 56$  ;  $56 + 28 = 84$  kromo

B metodoa:  $28 + 28 + 28 = 84$  kromo



Bien artean ..... **84**..... kromo dituzte.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Planteamendu okerra. 0 puntu emanen dira, orobat, ikasleak soluzio bat idazten badu (zuzena izan arren), baina ez eragiketak.
1	Planteamendua zuzen egin du, baita azken soluzio zuzena idatzi ere.


**16.- Osatu hurrengo taula ondoko esaldietatik abiatu-rik kalkulatu-zen diren emaitzekin.**

- ✓ Raulek albumean itsatsita dituen kromo- en erdiak errepi- katuta ditu Aitorrek.
- ✓ Anek 25 kromo ditu itsatsita eta, guztira, itsatsitako- en eta errepi- katutako- en artean 37 kromo ditu.
- ✓ Mirenek Raulek baino 18 kromo gehiago ditu itsatsita.
- ✓ Raulek do- zena bat kromo ditu errepi- katuta.
- ✓ Aitorrek Mirenek errepi- katuta dituen kromo- en hirukoitza du itsatsita.

Kromo kopurua	RAUL	MIREN	AITOR	ANE
...kromo ditu ITSATSITA albumean	46	<b>64</b>	<b>45</b>	<b>25</b>
...kromo <b>ERREPIKATU</b> ditu albumean	<b>12</b>	15	<b>23</b>	<b>12</b>

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
<b>0</b>	0 erantzun zuzen.
<b>0 – 1,5</b>	0,25 puntu erantzun zuzen bakoitzeko.

17.- Begiratu Maialenen kromo kopurua erakusten duen grafikoa.



a) Zenbat kromo ditu Maialenek, guztira?

Maialenek, guztira, .....**70**..... kromo ditu.

b) Zenbat kromo gehiago ditu Dragon Ball-ekoak eta Gorjuss-ekoak baino?

Dragon Ball-eko .....**10**..... gehiago ditu Gorjuss-ekoak baino.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
0 – 1	0.5 puntu erantzun zuzen bakoitzeko. Erantzun zuzenak: a) 70      b) 10




**LEHEN PARTEA BUKATU DUZU**

**Ez joan hurrengo orrialdera  
irakasleak agintzen dizun arte.**

**M** LH3

2017-2018



# Zuzenketa koaderno

*Izen-deiturak:* \_\_\_\_\_

*Ikastetxea:* \_\_\_\_\_

*Taldea/Gela:* \_\_\_\_\_

*Herria:* \_\_\_\_\_

*Data:* \_\_\_\_\_

**Matematika  
gaitasuna**

**Lehen Hezkuntzako 3.a**

## 2. partea



45 minutu dituzu probaren  
bigarren parte hau egiteko.



# Gure aitona-amonen herrian

Julenen aitona-amonak herrian bizi dira. Julenek gustuko du herrira joan eta aitona-amonekin zerbaitean aritzea.



**18.-** Julen goizeko bederatzia laurden gutxitan atera da Iruñetik. Goizeko bederatzia eta erdietan bere aitaxi-amatxien herrira iritsi da. Zenbat denbora eman du bidaian?

Idatzi eragiketa edo eragiketak, eta soluzioa.

**Egin beharreko kalkuluak.**

*Zenbait metodo erabil daitezke, adibidez:*

$$9:30 - 8:45 = 45 \text{ minutu}$$



Bidaia ... **45** ..... minutukoa izan da.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Planteamendu okerra. 0 puntu emanen dira, orobat, ikasleak soluzio bat idazten badu (zuzena izan arren), baina ez eragiketak.
1	Planteamendua zuzen egin du, baina azken soluzio zuzena idatzi ere, eskatutako neurri unitateetan.

**19.-** Apirilaren 26an, ostegunarekin, urteak bete zituen Julenen amonak. Handik hamaika egunetara izan zen aitonaren urtebetetzea. Noiz bete zituen urteak aitonak?

- A. Maiatzaren 6an, igandearekin.
- B. Maiatzaren 6an, astelehenarekin.
- C. **Maiatzaren 7an, astelehenarekin.**
- D. Maiatzaren 7an, asteartearrekin.



**20.-** Aitonak Juleni esan dio ondoko zereginak egiten zenbat denbora pasatu duen:

- *Ordu eta laurden txakurrarekin paseoan.*
- *Hamar minutu eta erdi gosaltzen.*
- *Aste erdia baratzea garbitzen.*
- *80 segundo auzokoarekin hitz egiten.*

Julenek zeregin horietan emandako denbora modu batean baino gehiagotan ordenatu du.

Zein aukera dago zuzen ordenatuta, iraupen txikienetik handienerako hurrenkeran?

- A. 80 segundo < ordu eta laurden < aste erdia < hamar minutu eta erdi
- B. 80 segundo < hamar minutu eta erdi < aste erdia < ordu eta laurden
- C. 80 segundo < ordu eta laurden < hamar minutu eta erdi < aste erdia
- D. **80 segundo < hamar minutu eta erdi < ordu eta laurden < aste erdia**

**21.-** Aitonak aitzurra darama bizkarrean. Zein da, zure ustez, aitzur horren luzera?

- A. **120 zentimetro.**
- B. 120 metro.
- C. 12 kilometro.
- D. 12 zentimetro.



- 22.- Goizean, aitonak 4 kilometro eta 750 metro egin ditu oinez, txakurrarekin. Arratsaldean, 6 kilometro egin ditu. Zenbat metro egin ditu egun osoan? Idatzi eragiketa edo eragiketak, eta soluzioa.

**Egin beharreko kalkuluak.**

*Zenbait metodo erabil daitezke, adibidez:*

$$4750 + 6000 = 10750 \text{ metro}$$



Aitonak ... **10750** ..... metro egin ditu.

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Planteamendu okerra. 0 puntu emanen dira, orobat, ikasleak soluzio bat idazten badu (zuzena izan arren), baina ez eragiketak.
1	Planteamendua zuzen egin du, baita azken soluzio zuzena idatzi ere, eskatutako neurri unitateetan.

- 23.- Julen bere amonarekin jolasten ari da. Neurri bakoitza dagokion magnitudearekin lotu behar du.


Taula honetan, adierazi X batez neurri bakoitzari dagokion magnitudea.

		Magnitudea		
		EDUKIERA	MASA	LUZERA
Neurria	250 cl olio	X		
	5 metroko altuera			X
	6 litro esne	X		
	40 km Iruñera			X
	60 cm zabal			X
	3 g azukre		X	
	4 kg patata		X	

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0, 1 edo 2 lotura zuzen.
0,5	3 edo 4 lotura zuzen.
1	5 edo 6 lotura zuzen.
1,5	7 lotura zuzen.

**24.- Julenen gurasoak telefono mugikorreko erlojuan jartzen duen orduan iritsi dira.**

**Adierazi ezazu sukaldeko erlojuan telefono mugikorrean agertzen den ordua.**



Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Bi orratzak ez daude zuzen jarrita.
1	Bi orratzak zuzen jarrita daude.

**25.- Erreparatu Julenen amonak egiten duen bizkotxoaren errezetari.**

**ERREZETA** (8 pertsonarendako bizkotxo baterako osagaiak)

- 3 arrautza.
- 16 gramo legamia-hauts.
- Limoizko jogurt bat (125 gramo).
- 270 gramo irin.
- 260 gramo azukre.
- 125 mililitro oliba-olio birjina estra.
- Limoi baten birrindura.

**a) Zenbat gramo irin eta azukre beharko dira, guztira, 8 lagunendako bizkotxo egiteko?**

.....

**b) Zenbat mililitro olio beharko dira bi bizkotxo egiteko?**

.....

**c) Irin kg batekin 4 bizkotxo egiten ahalko ditu? Zergatik?**

.....


.....

**d) Zenbat gramo azukre behar da 4 lagunendako bizkotxo egiteko?**

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0 erantzun zuzen.
0 – 2	0,5 puntu erantzun zuzen bakoitzeko. Erantzun zuzenak: a) 530 gramo. b) 250 mililitro. c) Baliozko erantzunak, honako hauen antzekoak: - Ez, kilogramo bat baino gehiago behar delako. - Ez, 80 gramo falta zaizkio. d) 130 gramo.

26.- Julen jostetan ari da aitarekin. Ikusi bi balantza hauek. Zenbat pisatzen du bola urdinak?



Bola urdinak ..... 7 ..... kg pisatzen du.


Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra.
1	Erantzun zuzena 7 kg.

# Pintura erakusketa

Eskolan pintura erakusketa egin dute.




27.- Begiratu erakusketan ikusi duten irudia.



Zer irudi geometriko lau ikusten dira irudian?

- A. Triangelua, esfera eta laukizuzena.
- B. Triangelua, zirkulua eta laukizuzena.
- C. Triangelua, zirkulua eta prisma.
- D. Triangelua, zirkulua eta laukizuzena.

28.- Begiratu ikasleek erakusketarako prestatu duten irudi hau.



Esan X baten bidez ondoko baieztapen hauek egia (E) ala gezurra (G) diren:

	E	G
Triangelu horia eskuineko zutabea dago.		X
Hexagonoa irudiaren erdian dago.	X	
Karratua beheko ilaran dago.	X	
Pentagonoa irudiaren erdian dago.		X

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0 erantzun zuzen.
0 – 1	0.25 puntu erantzun zuzen bakoitzeko.



**29.-** Klase batean, Miró artistaren lan baten horma-irudi bat pintatu dute. Ikasle batek horma-irudia erditik tolestu du, eta bi triangelu berdin egin ditu.


**Marraz ezazu marra bat horma-irudia tolestu duen tokian.**



Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra.
1	Laukizuzenaren bi diagonaletako bat marraztu du.

**30.-** Klase batean, Kaufman artistaren marrazki batzuen figura simetrikoak marraztu dituzte.

Marraztu irudi simetrikoa, simetria-ardatza kontuan hartuz.



Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra.
1	Erantzun zuzena

Lehen Hezkuntzako 3.a MATEMATIKA gaitasuna				
	Galdera	Mota	Erantzun zuzena	Puntuazio handiena
Buruzko kalkulua	1	Irekia	-----	3
Nafarroako herriak	2	Itxia	C	1
	3	Itxia	B	1
	4	Irekia	-----	1
	5	Irekia	-----	1
	6	Itxia	C	1
	7	Irekia	-----	1
	8	Irekia	-----	2
	9	Irekia	-----	2
	10	Irekia	-----	1
	11	Irekia	-----	1
Kromo bilduma	12	Irekia	-----	1
	13	Irekia	-----	1
	14	Irekia	-----	1
	15	Irekia	-----	1
	16	Irekia	-----	1,5
	17	Irekia	-----	1
Gure aitatxi-amatxien herrian	18	Irekia	-----	1
	19	Itxia	D	1
	20	Itxia	C	1
	21	Itxia	A	1
	22	Irekia	-----	1
	23	Irekia	-----	1,5
	24	Irekia	-----	1
	25	Irekia	-----	2
	26	Irekia	-----	1
Pintura erakusketa	27	Itxia	B	1
	28	Irekia	-----	1
	29	Irekia	-----	1
	30	Irekia	-----	1
			<b>Gutzikoa</b>	<b>36</b>